

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

Datu pertsonalen babesa
La protección de datos personales

2008ko junio
Ekaina 2008

http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea / Índice

SARRERA / INTRODUCCIÓN	1
LABURPENA / SÍNTESIS	3
A.- DATU PERTSONALEN ERABILERA ETA BABESA / Uso Y PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES	7
• Datu pertsonalak babesteari buruzko kezka maila / Nivel de preocupación sobre la protección de datos personales	8
• Kezkaren garapena / Evolución de la preocupación	10
• Datu pertsonalen babesa eta adin arriskutsua / Protección de datos y edad de riesgo	11
• Datu pertsonalen erabileran atzemandako segurtasuna / Seguridad percibida en el uso de los datos personales	12
• Datu motaren arabera atzemandako segurtasuna / Seguridad percibida según el tipo de datos personales	15
• Erakunde publikoak eta datu pertsonalen kopurua / Instituciones públicas y cantidad de datos personales	18
• Enpresak eta datu pertsonalen kopurua / Empresas y cantidad de datos personales	19
• Erakundeekiko konfidantza datu pertsonalen erabilera dela eta / Confianza en organizaciones respecto al uso de los datos personales	20
• Administrazioekiko eta enpresekiko konfidantza datu pertsonalen erabilera dela eta / Confianza en las administraciones y en las empresas respecto al uso de los datos personales	22
• Datu pertsonalen eskaera kopuruaren bilakaera / Evolución en la cantidad de datos personales solicitados	23

B.- DATU PERTSONALAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK / DATOS PERSONALES Y NUEVAS TECNOLOGÍAS	24
• Internet edota posta elektronikoen erabilera / Uso de Internet y/o del correo electrónico	25
• Datu pertsonalen babesarako tresna elektronikoen erabilera / Uso de herramientas informáticas para la protección de datos personales	26
• Bideo-zainketarako tresnen erabilera / Uso de instrumentos de videovigilancia	27
C.- PUBLIZITATE PERTSONALIZATUA / PUBLICIDAD PERSONALIZADA	28
• Datu pertsonalen erabilera publizitatean / Uso de los datos personales en la publicidad	29
• Publizitate pertsonalizatua ez jasotzeko eskubidea eta egikaritzea / Derecho a no recibir publicidad personalizada y ejercicio de dicho derecho	31
D.- DATU PERTSONALEN BABESERAKO LEGEAK ETA ERAKUNDEAK / LEYES Y ORGANISMOS PARA LA PROTECCIÓN DE LOS DATOS PERSONALES	32
• Datu pertsonalen babeserako legediaren ezagutza / Conocimiento de las leyes de protección de datos personales	33
• Datuen babeserako bulegoen ezagutza / Conocimiento de las agencias de protección de datos	35
• Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zereginen ezagutza / Conocimiento de las labores de la Agencia Vasca de Protección de Datos	36
• Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren informazio eskaintza / Oferta informativa de la Agencia Vasca de Protección de Datos	37

E.- DATU PERTSONALEN BABESA ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK / PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES Y DERECHOS DE LA CIUDADANÍA.....	38
• Datu pertsonalak ematea / Cesión de datos personales.....	39
• Erregistro batetik datuak ezabatzea / Cancelación de datos personales de un registro	41
• Datu pertsonalak ematea bezero edota kreditu txartela egitean / Cesión de datos personales al contratar una tarjeta de cliente o de crédito.....	44
• Datu pertsonalak ematerakoan konpromiso eta betebeharrak / Compromisos y obligaciones en la cesión de datos personales	45
• Herritarren eskubideak datu pertsonalak ematean / Derechos de la ciudadanía en la cesión de datos personales.....	46
• Datu pertsonalen babesari dagozkion herritarren eskubideak / Derechos de la ciudadanía en la protección de los datos personales.....	47
ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA.....	48

Sarrera / Introducción

Helburuak eta Informazioaren Iturria / Objetivos y origen de la Información

Ikerketa honen helburua herritarrek datu pertsonalen babesaren inguruan dituzten jarrerak eta iritziak jasotzea da. Zehatzago eta beste batzuen artean, ondokoek galdetu dugu: datu pertsonalak babesteari buruzko kezkez, atzemandako segurtasunaz eta teknologia berriez; arlo honetan dauden legeez, herritarrek dituzten eskubideez eta babeserako dauden erakundeei buruz.

Europar Batasuneko herrialdeekiko zein Espainiako estatuarekiko ditugun antzekotasun eta desberdintasunak ere ezagutu nahi ditugu. Halaber, gai honen inguruan aurreko urteetako datuak ditugun neurrian, ikuspegi kronologikoa ere eskaini dezakegu.

Ikuspegi deskribatzaile, ebolutibo eta konparatibo honek gidatuko ditu ondoko orrialdeak.

Aurkeztutako emaitzak telefonoz egindako ikerketa batean erabilitako berariazko galdesortatik datoz. Ikerketa hori 2008ko maiatzaren 5etik 7ra bitartean gauzatu da.

Inkestan planteatzen diren gai zehatzak Datuen Babeserako Euskal Bulegoaren eskaeran oinarritu dira eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen lankidetzarekin landu dira. Galderak prestatzea, azterketa estatistikoa eta, txostenaren idazketa eta edizioa, Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio.

El objetivo de este estudio es conocer las actitudes y opiniones de las vascas y vascos sobre la protección de datos personales. Más concretamente y entre otros, hemos preguntado sobre la preocupación en torno a la protección de datos personales, la percepción de seguridad y las nuevas tecnologías; las leyes existentes en este área, los derechos de la ciudadanía y los organismos existentes para su defensa.

También queremos conocer las similitudes y diferencias que presentamos respecto a los países de la Unión Europea o del Estado Español. Asimismo, en la medida en que tenemos datos de años anteriores respecto a este tema, podemos ofrecer una visión cronológica.

Este enfoque descriptivo, evolutivo y comparativo es el que guiará las siguientes páginas.

Los resultados presentados proceden de las preguntas incluidas en el cuestionario de un estudio telefónico realizado entre el 5 y el 7 de mayo de 2008.

Las cuestiones concretas planteadas han sido elaboradas a partir de una solicitud de la Agencia Vasca de Protección de Datos, y en colaboración con el Gabinete de Prospección Sociológica del Gobierno Vasco. La elaboración de las correspondientes preguntas, el análisis estadístico y, la redacción y edición del informe corresponden al Gabinete de Prospección Sociológica.

Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestaren datuak biztanleria guztirako ez ezik **segmentazio soziodemografiko eta soziopolitikoaren arabera** ere aztertu dira. Ondokoak dira aldagai soziodemografiko eta jarrerazko horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.*
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa.*
- Adin taldeak: *18-29, 30-45, 46-64 eta >=65.*
- Internet edo posta elektronikoaren ohiko erabiltzailea: *bai* (egunero edo ia egunero, gutxienez astean behin, gutxienez hilean behin) edo *ez* (ia inoiz ez, inoiz ez).

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas y sociopolíticas**. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- Sexo: *varón y mujer.*
- Grupos de edad: *18-29, 30-45, 46-64 y >=65.*
- Usuario habitual de Internet o correo electrónico: *sí* (todos o casi todos los días, al menos una vez a la semana, al menos una vez al mes) o *no* (casi nunca, nunca).

Laburpena / *Síntesis*

Datu pertsonalen babesarekiko kezka

EAEko herritarren %37 oso edo nahikoa kezkatuta daude erakunde publiko eta enpresa pribatuek euren datu pertsonalez egiten dute erabilpenarekin. Europar Batasuneko herritarren batezbestekoaren dezente azpitik dago adierazitako kezka maila (%64).

Azken bost edo sei urteetan datu pertsonalen babesari buruz duten kezka ez dela aldatu diote herritarren %57k, orain kezkatuago daudela %34k eta orain kezka gutxiago dutela %5ek.

Informazio pertsonalaren inguruan atzematen dugun segurtasuna

Teknologia berriak erabiliz, internet bidez izan ala ez, egiten ditugun zenbait jardueren segurtasuna dela eta, kreditu txartelarekin ordaintzeak biztanleen %64ri segurtasun handia edo nahikoa eskaintzen diela esan behar. Gainontzeko jardueretan segurtasun sententzia askoz txikiagoa da: internet bidez errenta aitortpena egitea (%31), internet bidez banku operazioak egitea (%24), telefonoz banku operazioak egitea (%20), erosketak egiteko txartelaren zenbakia interneten bidez ematea (%13) eta erosketak egiteko txartelaren zenbakia telefonoz ematea (%8).

Dena dela, eskatzen zaizkien datu pertsonal motaren arabera herritarrek segurtasun maila desberdinak atzematen dituzte. Herritarren %54k erraz emango lituzkete euren izena, jaiotze data eta helbidea eskatuko balizkiekete. Haatik, gainontzeko datu motak ematea gehiago kostatuko litzaieke: ideologiari buruzko datuak (%37k erraz), NAN zenbakia (%30ek), osasunari buruzko datuak (%27k), datu judizialak (%13k) eta azkenik, datu fiskalak (%6k).

Erakundeak, enpresak eta datu pertsonalen erabilera

EAEko herritarren %47k uste dute erakunde publikoek eurei buruzko datu pertsonal gehiegi dituztela; alabaina, pixka bat gehiago dira (%53) enpresa pribatuek informazio pertsonal gehiegi dutela uste dutenak.

Hainbat erakunde euren datu pertsonalez egiten duten erabilera ematen dien konfiantzaz galdetu zaie herritarrei. Honela, erakunde publikoak dira konfiantzarik handiena eskaintzen dutenak: Osakidetza (%91), Gizarte Segurantzza (%87), Ogasuna (%77), Eusko Jaurlaritzaren (%77), udalak (%72) eta polizia (%70). Bankuek (%69) eta aseguru konpainiek (%53) ere konfiantza ematen dute, baina irabazi-asmorik gabeko elkarteek (%35), inkestak egiten dituzten enpresek (%27) eta korreo bidezko publikitate enpresek (%11) soilik gutxiengo baten konfiantza dute. EAEko herritarrek EBko batezbestekoak baino konfiantza gehiago dute erakunde publikoetan, oro har,

Preocupación respecto a la protección de datos personales

Un 37% de la población de la CAPV está muy o bastante preocupada del uso que hacen las instituciones públicas y las empresas privadas de los datos personales que poseen de ellos y ellas. El nivel de preocupación mostrado es bastante inferior a la media de la Unión Europea (64%).

Un 57% dicen que en los últimos cinco o seis años no ha cambiado su nivel de preocupación respecto a la protección de los datos personales, un 34% que en la actualidad están más preocupados y un 5% que están menos preocupados.

Seguridad percibida en torno a la información personal

En cuanto a la seguridad de algunas acciones realizadas usando las nuevas tecnologías, sean o no a través de Internet, ofrece mucha o bastante seguridad pagar con tarjeta de crédito al 64% de la población vasca. La sensación de seguridad es mucho menor en el resto de acciones: declaración de renta por Internet (31%), realizar operaciones bancarias por Internet (24%), operaciones bancarias por teléfono (20%), dar el número de tarjeta por Internet (13%) y dar el número de tarjeta por teléfono (8%), para realizar compras.

En cualquier caso, las y los ciudadanos perciben diferentes niveles de seguridad según el tipo de datos personales que se les solicitan. Un 54% de la ciudadanía daría fácilmente su nombre, fecha de nacimiento y domicilio si se los solicitaran. Sin embargo, les costaría más dar otro tipo de datos: datos ideológicos (37% fácilmente), número de DNI (30%), datos sanitarios (27%), datos judiciales (13%) y por último, datos fiscales (6%).

Instituciones, empresas y uso de los datos personales

Un 47% de la ciudadanía de la CAPV creen que las instituciones públicas tienen demasiados datos personales sobre ellos y ellas; aunque son ligeramente más (53%) quienes creen que las empresas privadas tienen demasiada información personal.

Se ha cuestionado a la ciudadanía sobre la confianza que les ofrece el uso que hacen de sus datos personales algunas organizaciones. Así, las instituciones públicas son las que mayor confianza ofrecen: Osakidetza (91%), Seguridad Social (87%), Hacienda (77%), Gobierno Vasco (77%), ayuntamientos (72%) y policía (70%). Los bancos (69%) y las compañías de seguros también ofrecen confianza, pero las organizaciones sin ánimo de lucro (35%), las empresas de encuestas (27%) y las empresas de publicidad por correo (11%) tienen únicamente la confianza de una minoría. La ciudadanía de la CAPV tiene mayor confianza en las instituciones públicas, en general, que la media de

poliziarengan izan ezik.

Gainera, eurei buruz duten informazio pertsonalaz egiten duten erabilera konparatzean, biztanleen %66k diote konfiantza handiagoa dutela administrazio publikoengan eta %8k handiagoa enpresa pribatuengan, %6k diote konfiantza maila bera dutela bi sektoreengan eta %7k ez dutela konfiantzarik ez batean ez bestean.

Datu pertsonalak eta informatika

Biztanleen erdia pasa (%54) dira internet edo posta elektronikoen ohiko erabiltzaileak (egunero edo ia egunero, gutxienez astean edo hilean behin), %9k ez dute ia inoiz erabiltzen eta %39k inoiz ez. Internet edo korreoa erabiltzen duten ohiko erabiltzaileen %75ek datu pertsonalak babesteko nolabaiteko tresna informatikoak (pasahitzak, spam edo espion kontrako programak) erabiltzen dituztela diote.

Datu pertsonalak eta publizitatea

Biztanleen %73k diote noizbait jaso dutela korreo bidezko publizitatea euren izen-abizenekin, aurrez eskatu gabe, eta %68k telefono edo SMS bidez ere jaso dutela horrelakorik. Halaber, %68k badakite nahi ez duten publizitatea ez jasotzeko eskubidea badutela baina soilik %25ek dakite zer egin behar duten eskubide hori gauzatzeko.

Datu pertsonalen babeserako legeak, eskubideak eta erakundeak

EAEko herritarren %55k badakite datu pertsonalen intimitatea bermatu eta babesteko legerik badela. Legerik badela ezagutzen duten horietatik, %67k entzun dute zerbait Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoari buruz eta %37k Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari Buruzko Legeaz.

Alabaina, Datuak Babesteko Bulegoez zerbait entzun dutenak gutxiago dira: %44k zerbait entzun dute Espainiako Bulegoaz eta %26k Euskal Bulegoaz. Edozelan, Euskal Bulegoaz zerbait entzun dutenei honen lanari buruz duten ezagutzaz galdetu zaie: erakunde publikoek gure datu pertsonalak nola erabiltzen dituzten kontrolatzen du (%56), datu pertsonalen babeserako eskubidea ezagutzera ematen du (%52) eta enpresa pribatuek gure datu pertsonalak nola erabiltzen dituzten kontrolatzen du (%40).

Herritarren %59k diote ezagutzen dutela erakunde publiko edota enpresa pribatuei euren datu pertsonalak ematerakoan, horiek erabiltzeko baimena eskatu behar dietela eta, baita, datuen segurtasuna eta sekretu profesionala bermatu behar dituztela ere. Halaber, %39k euren datuak beste batzuei uzteko baimena idatziz eskatu behar zaiela

la UE, excepto en la policía.

Además, comparando el uso que hacen de la información personal que poseen sobre ellos y ellas, un 66% de la población afirman confiar más en las administraciones públicas y un 8% en las empresas privadas, un 6% afirman tener la misma confianza en ambos sectores y un 7% no confiar ni en uno ni en otro.

Datos personales e informática

Más de la mitad de la población (54%) son usuarios habituales de Internet o del correo electrónico (todos o casi todos los días, al menos una vez a la semana o una vez al mes), un 9% no lo usan casi nunca y un 39% nunca. Un 75% de entre quienes usan Internet o el correo electrónico habitualmente utilizan algunas herramientas informáticas para proteger sus datos personales (contraseñas, programas anti spam o antiespía).

Datos personales y publicidad

Un 73% de la población dicen haber recibido publicidad personalizada por correo sin haberlo solicitado previamente y un 68% que han recibido ese tipo de publicidad también por teléfono o SMS. Asimismo, un 68% saben que tienen derecho a no recibir publicidad personalizada que no deseen pero únicamente un 25% saben qué tienen que hacer para ejercer este derecho.

Leyes, derechos y organismos para la protección de datos personales

Un 55% de las y los ciudadanos de la CAPV conocen la existencia de alguna ley que protege y garantiza la intimidad de los datos personales. Entre quienes conocen la existencia de alguna ley, un 67% han oído hablar sobre la Ley Orgánica de Datos de Carácter Personal y un 37% de la Ley de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Tularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

En cambio, son algunos menos quienes han oído hablar algo sobre las Agencias de Protección de Datos: un 44% han oído algo sobre la Agencia Española y un 26% sobre la Agencia Vasca. En cualquier caso, a quienes han oído hablar sobre la Agencia Vasca, se les ha cuestionado sobre lo que conocen de la labor de ésta: controla el uso que hacen las instituciones públicas de nuestros datos personales (56%), da a conocer la existencia del derecho a la protección de datos personales (52%) y controla el uso que las empresas privadas hacen de nuestros datos personales (40%).

Un 59% de la ciudadanía dicen que saben que cuando las instituciones públicas o las empresas privadas les piden sus datos personales deben solicitarles permiso para usarlos y, también, que tienen que garantizar la seguridad de sus datos y el secreto profesional. Asimismo, un 39% dicen que saben que deben solicitarles por escrito su

ere badakitela diote.

Ondokoak dira euren datu pertsonalen babesari dagokionez dituzten eskubideei buruz herritarrek duten ezagutzaren ehunekoak: datuak zuzendu edo egunera ditzaten, zuzenak ez badira (%61ek); ezaba ditzaten, horiek jasotzeko zegoen helbururako beharrezkoak ez direnean (%48k); erakunde publiko edo enpresa pribatuei zure zein datu pertsonal dauzkaten galdetzekoa (%39k) eta azkenik, kalte-ordaina eskatzeko, datu horiek gaizki erabili izanak kalterik sortu badizu (%32).

permiso para ceder sus datos a terceros.

Los porcentajes de conocimiento que tiene la ciudadanía de sus derechos en cuanto a la protección de datos personales son los siguientes: derecho a rectificar y actualizar los datos si son incorrectos (61%); a cancelarlos cuando no son necesarios para el fin con el que se recogieron (48%); a preguntar a las instituciones públicas o empresas privadas qué datos personales tienen de usted (39%) y a una indemnización si un mal uso le provoca perjuicio (32%).

A.- Datu pertsonalen erabilera eta babesa / Uso y protección de datos personales


- **Datu pertsonalak babesteari buruzko kezka maila**
Nivel de preocupación sobre la protección de datos personales
- **Kezkaren garapena / Evolución de la preocupación**
- **Datu pertsonalen babesa eta adin arriskutsua / Protección de datos y edad de riesgo**
- **Datu pertsonalen erabileran atzemandako segurtasuna**
Seguridad percibida en el uso de los datos personales
- **Datu motaren arabera atzemandako segurtasuna**
Seguridad percibida según el tipo de datos personales
- **Erakunde publikoak eta datu pertsonalen kopurua**
Instituciones públicas y cantidad de datos personales
- **Enpresak eta datu pertsonalen kopurua / Empresas y cantidad de datos personales**
- **Erakundeekiko konfidantza datu pertsonalen erabilera dela eta**
Confianza en organizaciones respecto al uso de los datos personales
- **Administrazioekiko eta enpresekiko konfidantza datu pertsonalen erabilera dela eta**
Confianza en las administraciones y en las empresas respecto al uso de los datos personales
- **Datu pertsonalen eskaera kopuruaren bilakaera**
Evolución en la cantidad de datos personales solicitados

Datu pertsonalen erabilera eta babesa / *Uso y protección de datos personales*

Datu pertsonalak babesteari buruzko kezka maila *Nivel de preocupación sobre la protección de datos personales*

(GUZTIZKOAK ETA EUROPAREKIKO KONPARAZIOA / *TOTALES Y COMPARACIÓN CON EUROPA*)

Segur aski jakingo duzun bezala, erakunde publiko eta enpresa pribatu desberdinek zuri buruzko informazio pertsonala gordetzen dute, adibidez udalek, banketxeek eta kormertzioek. Esadazu mesedez, zuk nolako kezka duzu zure datuak egoki babestuta egoteari buruz: kezka handia, nahikoa kezka, kezka gutxi ala ez duzu batere kezkarik? / Como usted seguramente sabrá, diferentes instituciones públicas y empresas privadas guardan información personal sobre nosotros, por ejemplo ayuntamientos, bancos, establecimientos comerciales. Dígame, por favor, si usted está muy, bastante, poco o nada preocupado acerca de si sus datos personales están siendo adecuadamente protegidos.



Soilik herritarren %10 dago oso kezkatuta erakunde publiko eta enpresa pribatuek euri buruz duten informazio pertsonalaz egiten duten erabilpenarekin; beste %27k nahikoa kezka dute. Aldiz, gehiengo dira kezkatuta ez daudenak, %32 gutxi eta %27 batere ez.

Euren datu pertsonalak dituzten era guztietako erakundeek horien erabilera egokia egiten ote dutenari buruzko kezka (handia ala nahikoa) dute EBko herritarren %64k eta EAEko inkestatuek kezka maila askoz txikiagoa adierazi dute (%37).

Únicamente un 10% de la ciudadanía está muy preocupada del uso que hacen las instituciones públicas y las empresas privadas de la información personal que tienen sobre ellos; otro 27% está bastante preocupado. En cambio, son mayoría quienes no se muestran preocupados, un 32% poco y un 27% nada.

Un 64% de las y los ciudadanos de la UE se muestran preocupados (muy o bastante) respecto al uso adecuado de sus datos personales por parte de las diferentes organizaciones, frente a las y los de la CAPV, quienes muestran un nivel de preocupación bastante más bajo (37%).

Datu pertsonalen erabilera eta babesa / Uso y protección de datos personales

Datu pertsonalak babesteari buruzko kezka maila Nivel de preocupación sobre la protección de datos personales

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Segur aski jakingo duzun bezala, erakunde publiko eta enpresa pribatu desberdinek zuri buruzko informazio pertsonala gordetzen dute, adibidez udalek, banketxeek eta komertzioek. Esadazu mesedez, zuk nolako kezka duzu zure datuak egoki babestuta egoteari buruz: kezka handia, nahikoa kezka, kezka gutxi ala ez duzu batere kezkarik? / Como usted seguramente sabrá, diferentes instituciones públicas y empresas privadas guardan información personal sobre nosotros, por ejemplo ayuntamientos, bancos, establecimientos comerciales. Dígame, por favor, si usted está muy, bastante, poco o nada preocupado acerca de si sus datos personales están siendo adecuadamente protegidos

	2008KO MAIATZA MAYO 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				INTERNET EDO POSTA ELEKTRONIKOAREN OHIKO ERABILTZAILEA USUARIO HABITUAL DE INTERNET O CORREO ELECTRÓNICO	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	Bai / Si	Ez / No
		Kezka handia / Mucho.....	10	11	10	11	10	10	6	10	14	9
Nahikoa kezka / Bastante.....	27	31	30	21	28	26	30	29	28	20	30	23
Kezka gutxi / Poco.....	32	34	33	29	33	31	45	37	25	20	36	28
Batere ez / Nada.....	27	19	24	35	25	29	18	19	29	45	22	33
Ed-Ee / Ns-Nc.....	4	6	4	4	4	5	2	5	4	6	2	6
(Ehuneko bertikalak) / (Porcentajes verticales).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Arabarrak eta bizkaitarrak gipuzkoarrak baino arduratuago daude euren datu pertsonalen babesaren inguruan.

Adinean gora egin ahala datu pertsonalen babes egokiari buruzko kezka pixka bat handitzen doa, nahiz eta 64 urtetik gora berriro jaisten den, gaztediak baino kezka txikiagoa adierazi dutelarik.

Internet edo posta elektronikoaren ohiko erabiltzaileak erabiltzaile ez direnak baino kezka-tuago daude datu pertsonalen babesarekin.

Las y los alaveses y vizcaínos están más preocupados que las y los guipuzcoanos respecto a la protección de sus datos personales.

A medida que aumenta la edad, aumenta ligeramente la preocupación sobre la protección adecuada de los datos personales, aunque desciende nuevamente a partir de los 64 años, mostrando menor preocupación que la juventud.

Las y los usuarios habituales de Internet y el correo electrónico están más preocupados que quienes no lo son con la protección de datos personales.

Datu pertsonalen erabilera eta babesa / Uso y protección de datos personales

Kezkaren garapena / Evolución de la preocupación

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / TOTALES Y POR COLECTIVOS)

Eta duela 5 edo 6 urte baino kezkatuago zaude, orduko kezka berdina duzu ala orduan baino kezka gutxiago / ¿Y está usted más preocupado que hace 5 ó 6 años, igualmente preocupado (o despreocupado) o menos preocupado?


	2008ko MAIATZA Mayo 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				INTERNET EDO POSTA ELEKTRONIKOAREN OHIKO ERABILTZAILEA USUARIO HABITUAL DE INTERNET O CORREO ELECTRÓNICO	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	Bai / SI	Ez / No
DUELA 5-6 URTE BAINO KEZKATUAGO / AHORA MÁS PREOCUPADO QUE HACE 5 Ó 6 AÑOS	34	37	33	33	32	36	35	31	41	25	36	31
DUELA 5-6 URTEKO KEZKA BERA / IGUALMENTE PREOCUPADO (O DESPREOCUPADO) QUE HACE 5 Ó 6 AÑOS	57	54	58	57	60	54	56	64	48	64	56	58
DUELA 5-6 URTE BAINO KEZKA GUTXIAGO / AHORA MENOS PREOCUPADO QUE HACE 5 Ó 6 AÑOS	5	4	6	6	5	5	5	4	6	8	5	6
Ed-Ee / Ns-Nc	4	6	3	4	3	4	4	2	6	3	3	5
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

EAEko biztanleen %57k duela bost edo sei urteko kezka bera dute erakunde desberdinek eurei buruz dituzten datu pertsonalekin egiten duten erabileraz. Herena (%34) orain kezkatuago daude eta %5ek orain kezka gutxiago dute.

Talde guztietan gehiengoak duela bost edo sei urte zegoen kezka maila bera adierazi dute datu pertsonalen babesari dagokionez. Alabaina, 46 eta 64 urte artekoek adierazi dute gehien orain arduratuago daudela eta internet edo posta elektronikoen ohiko erabiltzaileak ere pixka bat arduratuago daude ez direnak baino.

Un 57% de la población de la CAPV muestran igual nivel de preocupación que hace 5 ó 6 años respecto al uso adecuado de sus datos personales por parte de las diferentes organizaciones. Un tercio (34%) está más preocupado en la actualidad y un 5% menos preocupado.

En todos los colectivos la mayoría muestra el mismo nivel de preocupación que hace cinco o seis años respecto a la protección de los datos personales. Aún así, quienes tienen de 46 a 64 años son quienes más dicen que están más preocupados en la actualidad y las y los usuarios de Internet o del correo electrónico también están algo más preocupados en la actualidad que quienes no son usuarios.



Datu pertsonalen erabilera eta babesera / Uso y protección de datos personales

Datu pertsonalen babesera eta adin arriskutsua Protección de datos y edad de riesgo

(GUZTIZKOAK ETA KOLEKTIBOKA / TOTALES Y POR COLECTIVOS)

Oro har, zure ustez zein adinetakoek dute arriskurik handiena, datuen babesari dagokionean? / ¿Cuál cree usted que es el grupo de edad que tiene más peligro en lo relativo a la protección de datos, en general?

	2008ko MAIATZA MAYO 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				INTERNET EDO POSTA ELEKTRONIKOAREN OHIKO ERABILTZAILA USUARIO HABITUAL DE INTERNET O CORREO ELECTRÓNICO	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	Bai / Sí	Ez / No
18 URTEK BEHERAKOAK / LOS MENORES DE 18 AÑOS.....	17	14	19	16	18	16	15	22	14	16	18	16
18tik 65 URTERA BITARTEKO HELDUK / LOS ADULTOS DE 18-65 AÑOS.....	21	18	21	22	23	19	27	17	23	17	23	18
65 URTEK GORAKOAK / LAS Y LOS MAYORES DE 65 AÑOS.....	15	15	19	11	14	17	16	15	15	17	17	14
BERDIN DA ZEIN ADIN DUZUN / DA IGUAL LA EDAD QUE SE TENGA.....	39	44	35	42	38	39	37	43	40	31	38	39
Ed-Ee / Ns-Nc.....	8	9	6	9	7	9	4	3	8	20	4	12
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Datu pertsonalen babesari dagokionean izan daitekeen arriskuan, herritarren %39k adina dela eta ez dagoela alderik uste dute. Gainontzeko inkestatuen iritzia honela banaturik agertzen da: arriskurik handiena 18 urtetik beherakoek dutela uste dute %17k, 18 eta 64 urte arteko helduek dutela %21ek eta 65 urte edo gehiagokoek dutela %15ek.

Talde guztietan osatzen dute multzo nagusia berdina dela zein adin duzun esaten dutenak. Bestalde, 30 eta 45 urte artekoak dira gehien aipatu dutenak 18 urtez azpikoek dutela arrisku handiena; gazteenak (18-29 urte artekoak) dira 18 eta 65 urte arteko helduek dutela arriskurik handiena gehien esan dutenak eta 64 urtetik gorakoek dutela arrisku gehien bizkaitarrek azpimarratu dute.

Respecto al peligro en lo relativo a la protección de datos personales, un 39% de la ciudadanía creen que no hay diferencias en función de la edad. La opinión del resto se distribuye de la siguiente forma: un 17% consideran que el mayor peligro lo corren las y los menores de 18 años, un 21% los adultos entre 18 y 64 años y un 15% quienes tienen 65 o más años.


En todos los colectivos constituyen el grupo más numeroso quienes opinan que da igual la edad que se tenga. Por otro lado, quienes tienen de 30 a 45 años son quienes más mencionan que el mayor peligro lo corren las y los menores de 18 años; la juventud (18 a 29 años) es quien más menciona que los adultos entre 18 y 64 años son quienes mayor peligro corren y las y los vizcaínos son quienes subrayan que el mayor peligro lo corren quienes tienen más de 64 años.

Datu pertsonalen erabilera eta babesa / Uso y protección de datos personales

Datu pertsonalen erabileran atzemandako segurtasuna Seguridad percibida en el uso de los datos personales

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

Eta zure datu pertsonalen babesa dela eta, nolako segurtasuna ematen dizute ondorengo ekintza hauetako bakoitzak? / Y en lo que se refiere a la protección de sus datos personales, ¿qué grado de seguridad le ofrece cada una de las siguientes acciones?



Datu pertsonalen babesari dagokionean zenbait ekintza egiteak nolako segurtasuna eskaintzen dieten galdetu zaie inkestatuiei. Honela, denda batean kreditu txartelarekin ordaintzeak segurtasun handia edo nahikoa eskaintzen die herritarren %64ri.

Aurkeztutako gainontzeko ekintzek segurtasun handia edo nahikoa herritarren gutxiengo bati eskaintzen diete: internet bidez errenta aitortpena egiteak (%31ri), internet bidez banku operazioak egiteak (%24ri), telefonoz banku operazioak egiteak (%20ri), erosketak egiteko txartelaren zenbakia interneten bidez emateak (%13ri) eta segurtasunik txikiena, erosketak egiteko txartelaren zenbakia telefonoz emateak (%8ri).

Datuak 2002an jasotako antzekoak dira, nahiz eta internet bidez egin daitezkeen jardueren segurtasun pertzepzioak pixka bat gora egin duen eta bestelakoek (txartel eta telefono bidezkoek) pixka bat behera. Horrela, internet bidez errenta aitortpena, banku operazioak edota erosketak egitea 2008an lehen baino zertxobait seguruagoak antzematen dira.

Se ha cuestionado a las y los encuestados sobre la seguridad que les ofrece la realización de algunas actividades respecto a la protección de sus datos personales. Así, el pagar en un establecimiento con tarjeta de crédito, ofrece mucha o bastante seguridad a un 64% de la ciudadanía.

El resto de actividades planteadas ofrece mucha o bastante seguridad a una minoría de la población: hacer la declaración de la renta por Internet (31%), realizar operaciones bancarias por Internet (24%), realizar operaciones bancarias por teléfono (20%), dar el número de su tarjeta por Internet para realizar alguna compra (13%) y la menor seguridad, dar el número de su tarjeta por teléfono para realizar alguna compra (8%).

Los datos son similares a los recogidos en 2002, aunque la percepción sobre la seguridad en torno a las operaciones realizadas por Internet ha subido ligeramente y ha descendido el de las otras (las realizadas con tarjeta o por teléfono). Así, hacer la declaración de la renta, operaciones bancarias y/o realizar compras por Internet se perciben ligeramente más seguras en 2008 que antes.

Datu pertsonalen erabilera eta babesa / Uso y protección de datos personales

Datu pertsonalen erabileran atzemandako segurtasuna Seguridad percibida en el uso de los datos personales

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Éta zure datu pertsonalen babesa dela eta, nolako segurtasuna ematen dizute ondorengo ekintza hauetako bakoitza? / Y en lo que se refiere a la protección de sus datos personales, ¿qué grado de seguridad le ofrece cada una de las siguientes acciones?

HANDIA+NAHIKOA / MUCHO + BASTANTE	2008ko MAIATZA MAYO 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				INTERNET EDO POSTA ELEKTRONIKOAREN OHIKO ERABILTZAILEA USUARIO HABITUAL DE INTERNET O CORREO ELECTRÓNICO	
		ÁRABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	Bai / SI	Ez / No
DENDA BATEAN KREDITU TXARTELAREKIN ORDAINDU / PAGAR EN UN ESTABLECIMIENTO CON TARJETA DE CRÉDITO	64	61	66	61	63	65	83	74	52	44	75	50
INTERNETEN BIDEZ, ERRENTA DEKLARAZIOA EGIN / HACER LA DECLARACIÓN DE LA RENTA POR INTERNET	31	26	30	36	38	25	43	42	24	12	45	16
TELEFONOZ BANKU OPERAZIOAK EGIN / REALIZAR OPERACIONES BANCARIAS POR TELÉFONO	20	13	21	22	27	13	20	29	17	10	29	10
INTERNETEN BIDEZ, BANKU OPERAZIOAK EGIN / REALIZAR OPERACIONES BANCARIAS POR INTERNET	24	18	22	31	28	19	34	37	16	6	38	8
TXARTELAREN ZENBAKIA INTERNETEN BIDEZ EMAN EROSKETAK EGITEKO / DAR EL NÚMERO DE SU TARJETA POR INTERNET PARA REALIZAR ALGUNA COMPRA	13	9	13	14	14	12	17	20	9	2	20	5
TXARTELAREN ZENBAKIA TELEFONOZ EMAN EROSKETAK EGITEKO / DAR EL NÚMERO DE SU TARJETA POR TELÉFONO PARA REALIZAR ALGUNA COMPRA	8	5	7	10	8	8	6	11	8	4	10	6
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Oro har, bizkaitarrei eta gipuzkoarrei arabarrei baino segurtasun gehiago ematen die datu pertsonalen babesa dela eta aurkeztu zaizkien ekintzak egiteak.

Gizonezkoek emakumezkoek baino segurtasun gehiago sentitzen dute aurkeztutako ekintzak egiterakoan, nahiz eta denda batean kreditu txartelarekin ordaintzea edota erosketak egiterakoan txartelaren zenbakia telefonoz ematean alderik ez izan.

Jarduera horietan segurtasun handia edo nahikoa antzematen dutenen kopurua adina jaitxi ahala igotzen da, nahiz eta 30 eta 45 urte artekoak diren internet edota telefono bidez banku operazioak egiterakoan edota erosketak egiteko txartelaren zenbakia internet edota telefono bidez ematerakoan segurtasun handiena antzematen dutenak.

Internet edo posta elektronikoaren ohiko erabiltzaileek erabiltzaile ez direnek baino segurtasun handiagoa antzematen dute jarduera hauek guztiak egiteko orduan.

En general, a las y los vizcaínos y guipuzcoanos les ofrece mayor seguridad respecto a la protección de sus datos personales que a las y los alaveses el realizar las acciones presentadas.

Los hombres muestran mayor seguridad que las mujeres al realizar las actividades presentadas, aunque al pagar en un establecimiento con tarjeta de crédito o al dar el número de su tarjeta por teléfono para realizar compras no hay diferencia.


Aumenta el porcentaje de quienes perciben mucha o bastante seguridad en esas acciones a medida que desciende la edad, aunque quienes tienen de 30 a 45 años son quienes mayor seguridad aprecian al hacer operaciones bancarias por Internet o por teléfono y/o al dar el número de su tarjeta por Internet o por teléfono para realizar compras.

Las y los usuarios habituales de Internet o del correo electrónico perciben mayor seguridad que quienes no lo son al realizar todas estas acciones.

Datu pertsonalen erabilera eta babesa / Uso y protección de datos personales

Datu pertsonalen erabilera atzemandako segurtasuna Seguridad percibida en el uso de los datos personales

(ESTATUAREKIKO KONPARAZIOA / COMPARACIÓN CON EL ESTADO)



Datuak Espainiakoen oso antzekoak dira, non denda batean kreditu txartelarekin ordaintzea den, baita, segurtasun handiena eskaintzen duen ekintza, alabaina, EAEkoa baino ehuneko pixka bat txikiagorekin (%64 eta %59, hurrenez hurren). Aldiz, errenta aitortpena internet bidez egiteak hemengoei baino segurtasun pixka bat gehiago eskaintzen die Espainiako gainontzeko herritarrei (%35 eta %31, hurrenez hurren).


Los datos son muy similares a los de España, donde pagar con tarjeta de crédito en un establecimiento es también la acción que más seguridad inspira, aunque con un porcentaje ligeramente inferior al de la CAPV (64% y 59%, respectivamente). En cambio, hacer la declaración de la renta por Internet les ofrece ligeramente más seguridad que a las y los ciudadanos de aquí a los del resto de España (35% y 31%, respectivamente).

Datu pertsonalen erabilera eta babesa / Uso y protección de datos personales

Datu motaren arabera atzemandako segurtasuna Seguridad percibida según el tipo de datos personales

(GUZTIZKOAK / TOTALES)

Ondoko datu pertsonalei buruz, esadazu mesedez zeintzuk emango zenituzkeen erraz, zeintzuk kostako litzaizukeen ematea eta zeintzuk ez zenituzkeen emango ezinbestekoa ez balitz / De los siguientes tipos de datos personales, dígame por favor cual o cuales de ellos daría usted fácilmente, le costaría darlos o no los daría salvo que fuera imprescindible



Herritarren erdia baino gehiagok (%54k) erraz emango lituzkete euren izena, jaiotze data eta helbidea eskatzen zaizkienean, %23k kostata eta %20k ez lituzkete emango ezinbestekoa ez balitz.

Aldiz, inkestan aurkeztutako gainontzeko datu motak erraz emango lituzketen herritarrak emango ez lituzketenak baino gutxiago dira. Honela, ideologiari buruzko datuak (erlijio sinismenak, iritzi politikoak...) %37k erraz emango lituzkete eta %43k ez lituzkete emango; NAN zenbakia %30ek erraz emango lukete eta %36k ez lukete emango; osasunari buruzko datuak erraz emango lituzkete %27k eta ez lituzkete emango %47k; datu judizialak (salaketak, delituak) erraz emango lituzkete %13k eta ez lituzkete emango %58k eta azkenik, datu fiskalak (ogasunari buruzkoak, zergak) soilik %6k emango lituzkete erraz eta ez lituzkete emango %65ek.

Más de la mitad de las y los ciudadanos (54%) daría fácilmente su nombre, fecha de nacimiento y domicilio cuando se los solicitan, a un 23% le costaría darlos y un 20% no los daría, salvo que fueran imprescindibles.

Sin embargo, la gente que daría fácilmente el resto de datos presentados en la encuesta son menos que quienes no los darían, salvo que fuera imprescindible. Así, un 37% daría fácilmente los datos ideológicos (creencias religiosas, opiniones políticas...) y un 43% no los daría; un 30% daría fácilmente el número de DNI frente a un 36% que no lo daría; un 27% daría fácilmente sus datos sanitarios y un 47% no los daría; un 13% daría fácilmente sus datos judiciales (denuncias, delitos) y un 58% no los daría y por último, sólo un 6% daría fácilmente sus datos fiscales (hacienda, impuestos) mientras que un 65% no los daría.

Datu pertsonalen erabilera eta babesa / Uso y protección de datos personales

Datu motaren arabera atzemandako segurtasuna I Seguridad percibida según el tipo de datos personales I

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Ondoko datu pertsonalei buruz, esadazu mesedez zeintzuk emango zenituzkeen erraz, zeintzuk kostako litzaizukeen ematea eta zeintzuk ez zenituzkeen emango ezinbestekoa ez balitz / De los siguientes tipos de datos personales, dígame por favor cual o cuales de ellos daría usted fácilmente, le costaría darlos o no los daría salvo que fuera imprescindible

	2008ko MAIATZA MAYO 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				INTERNET EDO POSTA ELEKTRONIKOAREN OHIKO ERABILITZAILEA USUARIO HABITUAL DE INTERNET O CORREO ELECTRÓNICO	
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	Bai / SI	Ez / No
IZENA, JAIOTZE DATA, HELBIDEA / NOMBRE, FECHA DE NACIMIENTO, DOMICILIO												
ERRAZ / FÁCILMENTE.....	54	52	54	54	59	49	70	63	43	38	62	43
KOSTAKO LITZAIKOE / LE COSTARÍA DARLOS.....	23	26	25	19	21	25	24	24	23	21	24	23
EZ LITUZKE EMANGO / NO LOS DARÍA.....	20	20	18	25	17	23	6	10	29	39	11	31
ED-Ee / Ns-Nc.....	3	2	3	2	3	2	1	3	5	1	2	3
IDEOLOGIARI BURUZKO DATUAK (ERLIJIO SINESMENEI BURUZ, IRITZI POLITIKOAK ...)/ DATOS IDEOLÓGICOS (CREENCIAS RELIGIOSAS, OPINIONES POLÍTICAS ...)												
ERRAZ / FÁCILMENTE.....	37	35	37	37	38	35	48	40	33	26	41	32
KOSTAKO LITZAIKOE / LE COSTARÍA DARLOS.....	17	13	20	14	19	15	21	19	17	11	20	14
EZ LITUZKE EMANGO / NO LOS DARÍA.....	43	46	41	46	40	46	31	39	47	59	38	50
ED-Ee / Ns-Nc.....	3	6	1	3	2	3	0	3	3	4	1	4
NAN / DNI												
ERRAZ / FÁCILMENTE.....	30	25	31	31	36	24	38	36	25	18	35	24
KOSTAKO LITZAIKOE / LE COSTARÍA DARLOS.....	31	37	32	27	33	30	46	34	24	22	37	24
EZ LITUZKE EMANGO / NO LOS DARÍA.....	36	34	34	40	30	42	15	28	47	56	26	48
ED-Ee / Ns-Nc.....	3	4	3	2	2	4	1	2	4	4	2	4
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES).....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

- Izena, jaiotze data, helbidea eta NAN zenbakia bezalako datu identifikatiboak arabar eta bizkaitarrek gipuzkoarrek baino gehiagotan emango lituzkete (erraz edo kostata) eta bizkaitarrek bestek baino gehiagotan datu ideologikoak ere.
